

IKASTETXEA	ASKATASUNA BHI	KODEA	50 2C 04
IZENBURUA	Baserria, euskal nekazaritzaren babesleku mendeetan zehar	MAILA	DBH 2
IRAKASLEA	Jorge Amezketa / Rafa Morras	IKASGAIA	GIZARTE

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

## 2. ATAZA

### TESTUA

#### Baserria, euskal nekazaritzaren babesleku mendeetan zehar

Euskal Herriko nekazaritzaren historia aztertzeko garaian, **baserria** garrantzi handiko elementua izan da. **Baserria**, etxebizitza gisa edo garai bateko ekonomi erakunde gisa uler daiteke. Alberto Santanak, bere “Baserria” liburuan dioenez, **Baserria** zentzu ekonomiko zabalenean interpretatzen bada, jatorria Erdi Aroan izango luke.

Behe Erdi Aroan, nekazariena zen gizarte-klase sozial ugariena, baina bigarren mailako biztanleak ziren eta jauntxo bakar batzuen menpe bizi ziren. Garai hartako nekazariak hiru kategoriatan sailka daitezke. Alde batetik, aitoren semeak zeuden. Hauek, landatzen zituzten lurretan eskubideak zituzten eta ez zuten inolako zergarik ordaintzen. Bestetik, nekazari askeak edo erregearen petxariak zeuden.

Hauek ere, lantzen zituzten lurretan autonomia zuten, baina **baserriko** ustiakuntza ezin zioten senidea ez zenari utzi, eta horrez gain, erregearen zergak ordaindu beharrean izaten ziren. Azkenik, hirugarren taldea, mailarik baxuenean zeuden nekazari-morroiek osatzen zuten. Ez zuten inongo askatasunik eta jauntxoaren baimenik gabe ezin ziren ezkondu. Erdi Aroko **baserriak**, oholezko txabolak ziren, barneko eskeletoa habeekin eraikitzen zen eta kanpotik oholezko paretak izaten zituzten.



Garrantzi handiko elementua izan da **baserria** Euskal Herriko nekazaritzan. (Noaua!)

Harrizko lehen **baserriak**, XV. mendean eraiki ziren eta garai hartan nekazari aberatsek bakarrik izaten zuten horrelako eraikuntza egiteko ahalmen ekonomikoa. Izan ere, **baserria** eraikitzeko hargin-taldeek soldadak ordaindu behar izaten ziren. Haritz-egurra berriz, dohainik eskuratzen zuten herriko basoetan.

XVI. mendean, **baserri** asko egin zen, harriz eta egurrez. Oraindik badira, garai hartan eraiki eta zutik dirauten **baserriak**. Balio handiko eraikinak dira; zaharrak izateaz gain, kalitatezko zurgintza eta hargintza baitute. Mota askotakoak ziren, baina denek bi solairu zituzten behekoa, familia eta abereentzat eta goikoa uzta jasotzeko (sagarrik eta garia batez ere). **Baserri** gehienek, dolarea eta upategia izaten zituzten. Izan ere, XVI. mendea, garai ona izan zen euskal **baserriarentzat**.

XVI. mendearen bukaera aldera, hiriguneetako merkataritzak eta untzigintzak krisialdia izan zutenean, jende asko **baserrira** begira jarri zen eta **baserri** guztiak bete ziren. Askotan zaila izaten zen denentzat lurrak aurkitzea.

Egoera hartan, eta miraria bailitzan, artoa azaldu zen. Honek, gariak baino etekin handiagoa ematen zuen lur-azalera bereberean. Artoa sartzearen ondorioz, nekazari aberatsenek **baserri** berriak eraiki zituzten alogeran eskaintzeko, eta bazter guztietan artoa ereiten hasi ziren. Baso eta otadiak artoa ereiteko garbitu ziren eta abereak ukuiluan denbora gehiago edukitzen ziren. Une gozoak izen ziren haiek.

Garia ordea, ez zen erabat desagertu. Izan ere, nekazariak **baserri**-jabeak eta eliza gari-anegekin ordaintzen zituzten eta haienentzat garia ereitera beharturik zeuden. XVIII. mendean, lurrak karearekin ongarrizten hasi ziren eta kare gehiegi erabiltzeagatik lur asko erre egin zen bazterretan, laborantzarako lur onenak hondatu egin zirelarik.

XIX. mendean lurra goldatzeko sistema berriak asmatu ziren eta, ondorioz, produkzioa asko emendatu zen. XX. mendearen hasieran, metal-, papera- eta ehun-fabrikak ireki zirenean, nekazari askok **baserria** utzi egin zuen eta berauen balioa asko jaitsi zenez, maizter askok jabeari **baserria** erosteko aukera izan zuten.

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	Bengoa Aisa, Aitor
IZENBURUA	Baserria, euskal nekazaritzaren babesleku mendetan zehar
ARGITALETXEA/Webgunea	Zientzia.net (Elhuyar)
URTEA	1997
ORRIALDEA (K)	
ISBN	
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	Inprimatua/ Elektronikoa: Web orria
FORMATOA	Mistoa
MOTA	Azalpenekoa
ERABILERA	Pribatua

<b>JARDUERAK</b>	
<b>1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU</b>	
<b>1.1 Galdera</b>	
Erdi aroko nekazariak zer hiru kategoriatan sailka daitezke?	
1.1 Erantzuna	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aitoren semeak</li> <li>- Nekazari askeak edo Erregearen petxariak</li> <li>- Nekazari-morroiek</li> </ul>	
1.1 OHARRAK	
<b>1.2 Galdera</b>	
Urtetan zehar zein labore ustiatu dira Euskal Herriko baserrietan, testuaren arabera?	
1.2 Erantzuna	
Garia eta artoa.	
1.2 OHARRAK	
<b>2. ULERMEN OROKORRA</b>	
<b>2.1 Galdera</b>	
Zein aukerak laburbiltzen du hobe testuaren mamia?	
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Antzin Arotik hasita, Euskal Herriko baserriaren bilakaera gaurdaino: garai hartan etxeak eraikitzeke harria hasi zen erabiltzen eta geroago harria.</li> <li>2. Erdi Arotik hasita, testuak Euskal Herriko baserriaren bilakaera gaurdaino azaltzen du: hasieratik harria erabiltzen zen etxeak eraikitzeke.</li> <li>3. Aro Berritik hasita, Euskal Herriko baserriaren bilakaera gaurdaino azaltzen du testuak: etxeak eraikitzeke garai hartan harria erabiltzen hasi zen.</li> <li>4. Erdi Arotik hasita, Euskal Herriko baserriaren bilakaera gaurdaino azaltzen du testuak: hasieratik egurra erabiltzen zen etxeak eraikitzeke eta geroago harri</li> </ol>	

<b>2.1 Erantzuna</b>	
4. Testuak Euskal Herriko baserriak Erdi Arotik gaurdaino zer bilakaera izan duen azaltzen du. Nola hasieran egurra erabiltzen zen etxeak eraikitzeke eta geroago harria.	
<b>2.1 OHARRAK</b>	
<b>2.2 Galdera</b>	
<b>Baieztapen hauetatik zein da zuzena testuak dioenaren arabera?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>a) Nekazariak beti izan dira bigarren mailako biztanleak.</li> <li>b) Lehenbiziko baserriak egurrez eta harriz eginak zeuden.</li> <li>c) Untzigintza krisialdia zela-eta, baserriak bete egin ziren.</li> <li>d) Fabrikak ireki zirenean baserrien prezioak asko igo ziren.</li> </ul>	
<b>2.2 Erantzuna</b>	
c) Untzigintza krisialdia zela-eta, baserriak bete egin ziren.	
<b>2.2 OHARRAK</b>	
<b>2.3 Galdera</b>	
<b>Baserriko historian zehar laborantza ekoizpena hobetu duten bi elementu eta kaltetu duen elementu bat aipatu, mendeak jarritz.</b>	
<b>2.3 Erantzuna</b>	
Hobetu:	- Artoa sartzea (XVI-XVII.m) - Lurra goldatzeko sistema berriak (XIX.m)
Kaltetu:	- Karea ongarri bezala gehiegizko erabiltzea (XVIII.m)
<b>3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK</b>	
<b>3.1 Galdera</b>	
<b>Erdi Aroan zein nekazari motak utzi ahal zion senide bati baserriko ustiaketa?</b>	
<b>3.1 Erantzuna</b>	
<b>Aitoren semeak eta nekazari askeak</b>	
<b>3.2 Galdera</b>	
XVI. mendean artoa miraria izan zela dio testuak. Zure ustez, zergatik izan zen? Arrazoitu erantzuna.	
<b>3.2 Erantzuna</b>	
Krisi garaian zeudelako, eta artoak gariak baino emaitza hobeak zituelako. Ondorioz, baserriak zituztenak aberastu eta baserri gehiago eraiki/landu.	
<b>4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA</b>	
<b>4.1 Galdera</b>	
<b>Zein da gaur egungo baserriaren egoera XX. mendean bere balioa jaitsti eta gero?</b>	

4.1 Erantzuna
<p><b>Horri erantzun irekia dagokio, baina izan daitekeena:</b></p> <p><b>Lanbide bihurtu dela, baserritarrak lantegian lan egiten duela eta gero berak ordu libreetan edota beste familiako batek ustiatzen dutela...</b></p>
4.1 OHARRAK
4.2 Galdera
<p><b>Zein izan da zure ustez baserriaren garairik onena? Argudiatu.</b></p>
4.2 Erantzuna
<p><b>Horri erantzun irekia dagokio, baina izan daitekeena:</b></p> <p><b>XVI. mendetik aurrera, artoa sartu zenean.</b></p>
4.2 OHARRAK
<b>5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA</b>
5.1 Galdera
<p><b>Testua 9 paragrafotan dago antolaturik. Haietako bi, paragrafo bakar batean batzeko zeintzuk iruditzen zaizkizu egokiak? Zergatik?</b></p>
5.1 Erantzuna
<p><b>2.a eta 3.a</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aro berean (Behe erdi aroan) kokatzen direlako.</li> <li>- Erdi aroko nekazariak sailkatzen dituztelako.</li> </ul>
5.1 OHARRAK
5.2 Galdera
<p><b>Testua web orri batekoa dela kontuan harturik, zer dela eta ageri da “baserri” hitza eta bere eratorriak beste kolore batean markaturik?</b></p>
5.2 Erantzuna
<p><b>Web orriko estekak direlako.</b></p>
5.2 OHARRAK